

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Barne araubideko ur homiduraren eta hiri hondakin solidoen tratamenduen gaineko eskumena eskuordetzea

Iragarki honen bidez jakinarazten da udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 24an egindako ohiko bilkuran, eta bertaratutako zinegotziek, legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo osoa biltzen dutenek, aho batez honako erabaki hau hartu dutela:

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko esku-menak eskuordetzea.

2016ko uztailaren 1eko erabakiaren bidez, udal honek hiri hondakin solidoak eta ontziak biltzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboan eta teknikoan agiriaren edukia berretsi zuen eta horri atxiki zitzaion. Erabaki hori Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak 2016ko maiatzaren 31n egindako azken osoko bilkuran onetsi zen. Agiri horretan ezarritako kontratazio aldia zortzi urtekoa da, eta beste bi urtez luza daiteke.

Ikusi da idazkariaren ebazpen proposamena, 2020ko urtarrilaren 16koa.

Ikusi da 2020ko urtarrilaren 16ko kontu hartze txostena.

Ikusi dira Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legea, Euskadiko Toki Erakundei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p), 25., 26. eta 47.2.h) artikulatuak, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Horregatik guztiagatik, udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehenengoa.- Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren esku uztea (Eltziegoko udalerria bertan baitago) hiri hondakin solidoak eta ontziak biltzeko zerbitzu hauek.

Eskuordetutako zerbitzuak:

Oro har, udal hondakinei dagozkienak, definizio horren barruan sartzen direlarik etxeko hondakinak, hau da, etxeetan etxeko jardueren ondorioz sortzen direnak, bai eta merkataritzako jarduerak berak sortutako antzekoak ere:

1. Gainerako hondakinen bilketa.
2. Ontzi arinen gaikako bilketa.
3. Materia organikoaren gaikako bilketa.
4. Konpostatze puntuen kudeaketa.
5. Paper eta kartoiaren gaikako bilketa.
6. Beiraren gaikako bilketa.
7. Ehunaren eta berrerabil daitezkeen beste hondakin batzuen gaikako bilketa.
8. Gaikako bilketa azoka txikietan, herriko festetan eta beste ekitaldi batzuetan.
9. Altzariak, tresnak eta bestelakoak biltzea.

10. Kaleak garbitzetik sortutako hondakinak kudeatzea. Eraikuntzako obra txikietako eta etxeetako konponketa lanetako hondakinak biltzea.

11. Bide publikoan abandonatutako etxeko animalia hilak biltzea.

12. Bide publikoan abandonatutako ibilgailuak biltzea.

13. Etxeko landare-olio erabiliaren gaikako bilketa.

14. Landa eremuko garbiguneen kudeaketa.

15. Bilketa, garraio eta biltegiatzearen zerbitzua, sektoreko legeria arautzailean ezarritakoaren arabera, udalei dagokiena eta akordio honen bidez espresuki salbuesten ez dena.

Eskuordetzak barne araubideko ahalmen hauek ditu:

a) Eskuordetutako zerbitzuen prebentzio eta kudeaketa programak egitea.

b) Zerbitzua emateko eta erabiltzeko araudia eta, horrek dakarren zehatzeko ahalmena.

c) Eltziegoko Udalaren ordezkartza, eskuordetutako zerbitzuen kudeaketari dagokionez, edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean (beste erakunde batzuekiko harremanak, dirulaguntzak eskatzea, etab.).

d) Eskuordetutako zerbitzuen komunikazioa, sentsibilizazioa eta azterketa egitea.

e) Barne araubideko hondakinak kudeatzeari buruzko ordenantza, zerbitzu publiko iraunkoragoa diseinatu ahal izateko eta udalerrien arteko sinergiak aprobetxatu eta kuadrillako herri-tarrei zerbitzu hobea emateko.

Bigarrena.- Eltziegoko Udalak edozein unetan baliogabetu dezake eskuordetze hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 6. artikulua arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta eskuordetzearen edukia ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki hau Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar den agiri oro sinatzeko.

Administrazio bidea amaitzen duen aurreko erabakiaren aurka, nahi izanez gero eta ez aldi berean, honako errekurso hauek aurkeztu ahal izango dira:

a) Aukerako berraztertze errekurtsua; aurkaratutako ebazpena edo egintza eman duen organo berari aurkez dakioko. Errekurtsua hilabeteko epean jarri beharko da, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori mugaegunaren hilean jakinarazpena egiten den egun berean amaituko da. Epemugaren hilabetean ez badago zenbaketa hasten den egunaren parekorik, epea hilabetearen azken egunean amaitzen dela iritziko da. Errekurtsu hori jartzean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 115. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira, lege horren 123. eta 124. artikuluetan zehazten denarekin bat etorritz.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, errekurtsua aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera. Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Errekurtsua jarri eta hilabeteko epean ez bada ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen, administrazio isiltasunez ezetsizat jo beharko da, eta, kasu horretan, errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, sei hilabeteko epean.

b) Errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Eltziego, 2020ko otsailaren 25a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE